



LARRAUNGO
UDALA

**JOSE JAVIER BARBERENA ETXARRI JAUNA, LARRAUNGO
UDALEKO ALKATEA, GAURKO EGUNAREKIN HONAKO
EBAZPENA EMAN DU:**

ALKATEAREN EBAZPENA

Zbk.: 1/2019.

Larraun, 2019ko ilbeltzaren 22an.

Alkatea: José Javier Barberena Etxarri.


ALKATEAREN EBAZPENA

2019ko lan egutegia eta egun baliogabeen deklarazioa

Kontuan izanik ekainaren 19ko 312/2018 Ebazpena, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekueratu behar ez diren 2019ko asteguneko jaien egutegi ofiziala ezartzen duena; abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren aplikazio eremuan sartzen diren Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen urteko lanordu kopurua ezartzen duena; abenduaren 14ko 149/2018 Foru Agindua, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2019ko lan egutegia onesten duena; eta aplikatzekoak diren beste xedapen batzuk,

ERABAKI DUT:

Onartzea Larraungo Udalaren zerbitzuko langileentzat 2019ko lan egutegia, eta egun baliogabeen deklarazio egitea. Ondorioz, egun hauek jaiegun izanen dira eta haietan itxita egonen dira udal bulegoak:



LARRAUNGO
UDALA

- _Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 7a: Errege Egunaren ondoko astelehena.
- Martxoaren 19a: San Jose
- Apirilaren 18a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 19a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 22a: Pazko biharamuna.
- Maiatzaren 1a: Langileen eguna.
- Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea.
- _Abuztuaren 16a: Andre Mariaren Jasokundearen ondoko eguna. (San Pedroko egunaren ordeztu).
- Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.
- Azaroaren 1a: Santu Guztien eguna.
- _Abenduaren 2a: Frantzisko Xabier egunaren aurrekoa (San Migeleko egunaren ordeztu).
- Abenduaren 3a: Frantzisko Xabierkoaren eguna.
- Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.
- Abenduaren 25a: Eguberri.

Gainera 3 jaiegun gehiago ezartzea, langile bakoitzak hautatzekoak, baldintza izanik ez dela Udala jendearentzat itxiko.

Udaletxeko bulegoak itxita egonen dira urteko larunbat eta igande guztietan, eta gorago aipatutako jaiegunetan, horiek ere kontuan hartu baitira 2019ko lan egutegian.

Halaber, baliogabeak izanen dira, 2019an epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta udal bulegoetarako jaiegun deklaratu direnak.




LARRAUNGO
UDALA

Ebazpen honen kontra, errekurso hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:


- 1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.
- 2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

ALKATEA


José Javier Barberena Etxarri



IDAZKARIA


Ana Alduntzin Navarro

